

2. Soldadutzan



2.1

Txomin Artetxe Bilbao, soldadutzan, Filipinetan. Txomin 1877.eko epailaren 7an jaio zan eta argazkia 1898 ingurukoa da. Soldadu Zaragozan egoan eta handik eroan ebezan Filipinetara gerrea hasi zanean. Gerrilleru egoala, atzamar txikerra matxetaz eridu eutseen. Prisioneru hartu eta Igorreko baronesari (kapitanan andrea) esker bera eta Pedro Poponen anaia bat libre ekarri ebezan.



2.2

Julian Artetxe Gezala soldadutzan, Kaballerian, Burgosen, 1916 aldera. Julian 1896-VII-lean jaio zan, bere gurasoak Pedro Antonio Artetxe Aldekoa eta Florenzia Gezala izan zirala. Julian zazpi neba-arrebatan zaharrena izan genduan: Julian, Maria, Isabel, Simona, Bizente, Sotero eta Ebaristo.



2.3

Pedro Bereziartua Ortuzar, soldadutzan, 1915 aldera. Pedro (1895an jaioa) Berdolatzeko Paulina Bilbao Aizpurugaz (1897-VI-22an jaio eta 1986-III-1an hil zana) ezkondu zan, 1918.eko bagilaren lean. Alaba bakarra izan eben, Ageda, Berdolatzen bizi dana. Pedro 1924an hil zan Ageda urtekoa zala.



2.4

Pedro Madrazo Alonso, 1885.eko urtarrilaren 30ean jaioa (1946-VIII-3an hil zan 61 urteko zala), Arantzazun. Argazkia soldadutza garaikoa da, 1905 ingurukoa. Luzila Ordeñana Atutxagaz ezkondu eta bost seme alaba izan ebezan: Inazio, Santa, Mercedes, Mariano eta Miguel.



2.5

Roman Artetxe Idirin 1906.eko zezeilaren 23an jaio Olarran eta 1932-VI-11n hil zan. Roman Pedro Artetxe eta Pilar Idirinen laugarren oinordekoa izan zan. Argazkia 1926 ingurukoa da, Marinaran soldadu egoanekoa.



2.6

Tomas Arroita Bernaola, soldadutzan, Melillan, 1949an. Tomas Jose Arroita eta Marzelina Bernaolaren bosgarren oinordekoa izan zan (Marzelina, Mari, Jose, Estefana, Tomas eta Juanita). Tomas Olarragoitiko Paula Bernaolagaz ezkondu zan 1956 urtean eta seme-alaba bi izan ebezan, Maria Isabel eta Tomas. 1984-III-10ean hil zan, 54 urteko zala.



2.7

Lorenzo Artetxe Etxebarria, 1912.eko zezeilaren 2an jaioa, Olarreko Kati-kena baserrian. Soldadutza Santanderren egin eban, Asturiaseko Errebo-luzinoaren urtean. Argazkia garai haretakoa da (1933). Lorenzo 1977-VIII-16an hil zan, 65 urteko zala.